

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Javier Gomeza Arrozpide

*Arratzu,
Bizkaia (1929)*

Aurkibidea



Biografia



Arratzuko Belendiz auzokoa, ama Forukoa zuen eta aita arratzuarra. Baserrian bizi ziren. Lau senidetan hirugarrena da Javier. Baserriko lanetan ibili zen eta zerrategi batean ibili zen lanean, 26 urterekin Ameriketara joatea erabaki zuen arte. Nyssara (Oregon) joan zen eta urtebete egin zuen ardi-lanetan. Ondoren, jabe beraren beste arrantxo batera joan zen, behiekin lana egitera; esnetegi a zen eta 100 ardi jezten zituen egunean bitan (makinekin). Hogei urtean egin zuen lana han. 1958an bere anaia Jose Antonio ere Ameriketara joan zen ("Tony" bertan geratu zen bizitzen hura ere, Boisen). 1960an mexikar batekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Behin bakarrik joan da Euskal Herrira bisitan (hilabetez egon zen bertan, 1974an). Ontarion bizi da (Oregon). 2005ean arrantxoa ipini zuen, Nicolas ilobarekin (N.J. Gomeza).

Zintak

ART-006

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-10
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Ameriketara lanera joateko arrazoiak

- **Erref:** ART-006/013
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:09:42

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak

Laburpena:

Soldaduska bukatu zuenean, edonora joateko askatasuna zuenez Ameriketara joateko erabakia hartu zuen. 1960an ezkondu zen.

2. Kanpero bezala lanean lehenengo urtean

- **Erref:** ART-006/015
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:10:49

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

Ontariora heldu zenean, kanpero bezala ibili zen lanean. Bigarren urtetik aurrera esnetegian lanean hasi zen.

3. Hartzek bildotsak hiltzen zituen

- **Erref:** ART-006/017
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:10:53. **Bukatu:** 00:11:34

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

Ardiak zaintzen ibili zenean hartzak hil zituen riflearekin. Bere anaiarekin batera hildako hartza agertzen den argazki bat erakusten du.

4. Bederatzi hartz hil zituen urtebetean

- **Erref:** ART-006/019
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:14:18

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

Ardi-kanpoan urtebetan bederatzi hartz hil zituen. Argazkian, bere anaiarekin eta hartzarekin agertzen da. Koiote bat ere hil zuen.

5. Basakatua agertu zen oilotegian

- **Erref:** ART-006/020
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:15:05

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

Behin basakatu bat aurkitu zuen etxeko oilotegian eta akatu egin zuen. Sugerik ez du sekula ikusi.

6. Ardi-kanpoan zazpi hilabetez jarraian

- **Erref:** ART-006/022
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:15:17. **Bukatu:** 00:17:50

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

Kanpero bezala ogia egin behar izaten zen. "Dotxabana" batean egiten zuten. Ardi-kanpoan "tentian" (kanping-denda) egiten zuten lo. Martxotik abendurarte egoten ziren mendian. Berarekin zegoen artzaia Mike Aranburu zen eta arazo batzuk izan zituzten haien artean. Okela asko jaten zuten. Gatzetan babesten zuten.

7. Kanperoaren eta artzaiaren lana ezberdina da

- **Erref:** ART-006/023
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:57

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

Ardi-kanpoan lan egindako urtea gogorra izan zen. Behiekin ibilia zen Euskal Herrian, baina Ameriketara 2000 ardi zituen.

8. Ardi-kanpoko bizimodua

- **Erref:** ART-006/024
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:22:10

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

Ardi-kanpoan argia nola lortzen zuten kontatzen du. Irratia. Hamabost egunero maiordomoak janaria eta beharrezko guztia eramaten zien. Etxekoan falta zeukan, baina gutun gutxi idatzi zituen.

9. Zuhaitzetako lertxun-marrak

- **Erref:** ART-006/025
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:23:52

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

Zuhaitzetan labanarekin lertxun-marrak egindakoa da Javier. Bere izen-abizenak idazten zituen, marrazkirik ez. Artzai eta kanperoen artean oso zabaldua zegoen ohitura zen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com